Behin bazen...
Once upon a time...

Hirigintza eta proiektuen lantegia bat

LEHEN LAUHILEKOA

Ula Iruretagoiena

PROPOSAMENA

1 Helburua hiria eraikitzearen inguruan ematen den gatazka jakin baten gaineko gogoeta eragitea da

2 Horretarako LanMetodologia zehatz bat proposatzen da ariketa aurrera eramateko

3 Ikasleari hiriaren inguruko aztertze lan bat egiteko aukera luzatzen zaio eta azterketa horren norabidetzeak ikaslearen apropiazioa izan dezake, desio pertsonalen araberakoa

LAN METODOLOGIA

1 Irakasleak emandako artikulu edo idatzi bat izango da lanaren abiapuntua. Hortik proposamenaren izenburua...

2 Lehenik eta behin artikuluaren gaia(k) zehaztu eta lankideen artean eztabaidatuko d(ir)a

3 Lankideentzat interesa duen gaia-gatazka definituko da, azterketa gaia akotatuz

4 Gatazka horretan aktore diren partehartzaileak identifikatuko dira, bakoitzaren ikuspuntuak/perspektibak eta eragina duten faktoreak definituz. Honela gatazkaren konplexutasuna irudikatuko da

5 Gaia-gatazkaren dokumentazioa. Gatazkaren inguruko azterketa artikulu, adibide edo bestelakoen bidez jantziko da

6 Historian zehar eta testuinguru desberdinetan aktore horien garapena aztertu eta irudikatuko da

7 Ondorioak. Helburua ez da gatazkaren soluzioa aurkitzea. Simulazio ariketa gisara(egoera fiktizio bat alegia), egoera berri jakin batean (faktoreren baten modifikazioaz adibidez) aktoreen jarreraren formulatzea izango da ariketaren amaiera. Emaitza teoriko-abstratua izan daiteke edo adibide praktiko batzuen azalpena

8 Simulazioen aurkezpen publikoa. Taldearen gogoeta-azterketa lana ikasle-kideei plazaratuko zaie

LAN DINAMIKA

1 Hastapeneko pausuak taldeka egitea proposatzen da. 3 /4 ikasle gehienez. ika-mika aberasteko helburuaz

2 Taldearen erabakia izango da banaka bukatzea edo elkarlanean jarraitzea

3 Lehen lauhilekoaren erritmoa talde bakoitzaren LanMetodologiak zehaztuko du eta elkarrekin diseinatuko dugu. Hau da, fase bakoitzaren luzapena taldeak lanaren aurrean duen posizionatzeak erabakiko du

EMATEA

1 Lehen lauhilekoan zehar zehaztuko den datarako lanaren aurkezpena eskatuko da

2 Helburua egindako lana gainontzeko ikasleei igortzea da

3 Aurkezpenaren formatoa librea da, egindako lanak eskatzen duenaren araberakoa (irudi proiekzioa, 2D/3D materiale grafikoen erakusketa, maketa, performance/antzezlana, bideoa...)

4 Irakasleari eman beharrekoa idatzizko txosten bat izango da. LanMetodologiaren ondorioak eta helburuak azalduz (hitzak eta marrazkiak)

INFORMAZIOA

www.ehu.es/hirigintza